

## 2017ko udazkenean hasiko dira kiroldegiko eraberritze lanak

Lanak martxan jartzeko prozedura hilabeteetan luzatuko denez, lanen hasiera 2017ko urrirako aurreikusi dute.

Urnietako kiroldegia goitik behera berrituko dute, ia lau milioi euroko inbertsioa eginez. Udalak aurreko astean jendaurrean egindako aurkezpenetan xehetasunak eskaini zituen. "Prozedura legala luzea da, obra lehiaketara eraman behar delako", adierazi zuen Jorge Segurado zinegotziak. Hots, lehiaketa deitza 3 hilabete, proiektuak idatzi eta aurkeztea 5 hilabete eta lanen lizitazioa beste 3 hilabete gehiago. Ondo bidean, 2017ko urrian hasiko lirake kiroldegia eraberritzen. Lanak amaitzeko ia bi urte igaroko dira, zehazki 20-22 hilabete.



Urnietako kiroldegia goitik behera berritzeko 3.750.000 euroko inbertsioa egingo dutela iragarri du Udalak.

Etorkizuneko urnietarren beharrei erantzuteko instalakuntza izango da kiroldegiko bigarren pistarekin, arte martzialen aretoarekin, muskulazio-kardio edota spinning gele-

kin eta erabilera anitzeko aretoarekin. Horiez gain, herritarren iradokizunak kontuan hartuta, eraberritze gehiago egingo dituzte: tenisa eta padel gune estalia edota aldageletara

bideratutako espazioak handitzea.

Lanak irau bitartean kirol zerbitzuak eskaintzen ahaleginduko direla iragarri zuten. [URNIETA, 3. ORRIALDEA]

## Karrika jaietan, asteburuan



Karrika jaietan murgilduko da asteburuan. Eta udan zehar Etxeberrieta, Goiburu eta Buruntza.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

## Ordutegi aldaketa

Udal zerbitzu ezberdinetan aldaketak izango dira, ordu-tegiari dagokionez.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

## Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

## Udan zinema kalean

Ostiral honetan eta datorren ostegunean, kalean eskainiko dute zinema.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

## Gabon Txirrita, aurkezpen ekitaldia

Datorren irailaren 10ean Trinitate plazan, eta 23an Urnietako kiroldegian.


Donostia 2016ko bozeramailek asteartean hedabideen aurrean aurkeztu zuten "Gabon Txirrita" antzezlan, irailean Urnietan eta Donostian taularatu dute.

Xabier Letek idatzi zuen obra, XX. mende hasierako bertsolari handia gogoan. Urnietako Buruntza antzerki taldeak 1982an Euskal Herri osoan barrena aurkeztu zuen, Leteren zuzendaritzapean. 2016ko kultur hiriburutzaren ekitaldien artean, antzezlan berreskuratuko dute urnietar askoren lanari esker.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]



Aurkezpen ekitaldia egin zuten astearte eguerdian, Donostian.



www.aiurri.eus

## Uztailaren 15etik aurrera, sarean lanean:

- Jaiak, albisteak, gertaerak, deialdiak...
- Argazkiak, bideoak eta kronikak ikusgai aiurri.eus webgunean
- Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak

## GABON TXIRRITA ANTZEZLANA ASTEARTEAN AURKEZTU ZEN DONOSTIAN

# Gabon Txirrita antzezlana Donostian aurkeztu da

Pasa zen asteartean aurkeztu zen prentsaurrean, Donostiako Konstituzio plazako liburutegian, Gabon Txirrita antzezlana. Aurkezpen ekitaldian hitza hartu zuten, Xabi Paya, Donostia 2016ko kultur

programaren zuzendariak, Mikel Pagola, Urnietako alkateak, Miren Gojenola, antzezlaren zuzendariak, eta Jokin Izagirre aktoreak. Beraiekin izan ziren antzezlaneko hainbat aktore.



## XABI PAYA

“Xabier Letek idatzitako obra honek Txirritari eginiko epaiketa bat irudikatzen du. Duela 34 urte Urnietako Buruntza antzerki taldeak taularatu zuen Urnietan bertan, Xabier Letek berak zuzenduta. Orain, Txirritaren heriotzaren 80. urteurrenaren efemeridea baliatu du Donostia 2016 kultur hiriburtzak obra hau berriro taulartzeko. Joxan Goikoetxearena izan zen obra berreskuratzeko ideia, eta berak jarriko dio musika zuzenean”.

Payak, baita ere, aipatu zuen Ramon Etxezarreta ari dela Leteren obra hau gaztelaniara itzultzen, eta euskaraz ez dakiten ikusleek ere, modu batera edo bestera, antzezlana jarraitzeko aukera izango dutela. Baita ere, jakinarazi zuen, irailaren 10ean Donostiako emanaldiaren egunean, euria egiten badu leku estali batean eskainiko dela.



Donostia 2016ko arduradunak, Urnietako alkatea eta antzezlaneko aktore batzuk astearteko aurkezpenean.

## MIKEL PAGOLA

“Donostia 2016 kultur hiriburtatik obra hau elkarlanean aurrera eramatea proposatu zuten, eta ezin genuen ezetzirik eman. 60-70eko hamarkadetan Urnieta, Euskal antzerkiaren munduan erreferente bat izan zen, Egi billa eta Buruntza antzerki taldeekin. Azken hamar urteetan berriro berpiz-

te bat bizitzen ari gara. Beraz, talde honek badu eskarmentua eta donostiarrak harrizko moduko emanaldia eskainiko dutela ziur nago.”

## MIREN GOJENOLA

“Aktoreak lan oso ona egiten ari dira, asko ahalegindu dira, amateurak dira, baina profesionalen moduan ari dira lane-

an. Hainbat antzezlanetan parte hartutakoak dira. Pozik gaude, lan ederra ikusten da. Lortuko dugu jendea pozik uztea. Leteren obrari fidelak izaten saiatu gara. Aldaketaren bat aipatzekotan, esango nuke emakumeen presentzia gehitu dugula. Duela 34 urteko emanaldietan gizonezkoenak ziren juezaren eta tabernariaren pertsonaiak, emakumeenak izate-

ra pasa dira, eta aldeketarekin obrak irabazi egiten du.”

## JOKIN IZAGIRRE

“Duela bost hilabete deitu zitadaten honen berri emateko, kriston beldurra sartu zitadaten, baina, ezin nuen ezezkerik eman, eta hemen nago, duela 34 urteko paper bera jokatzen. Orduan, 18 emanaldi eskaini genituen, eta arrakasta handiz. 30.000 pezeta kobratzen zituen taldeak emanaldiko, eta besteak beste, diru harekin arropak alokatzen genituen. Xabier, oso esijentea zen gurekin, eta bere jenio txarra frogatzeko aukera ere izan genuen. Berarekin asko ikasi genuen.”

## SAIOAK ETA SARREREN SALMENTA

■ Trinitate plaza, Donostia, **irailak 10**, gaueko 21:00etan. Sarrerak, dagoeneko salgai: Sarobe, DSS2016Uren Alderdi Ederreko informazio puntua, Donostia 2016ren webgunea eta Kutxabank.

■ Urnietako kiroldetgia, **irailak 23**, gaueko 22:00etan. Sarrerak, Saroben (uztailaren 18tik aurrera). Helbide elektronikoa honetan ere erreserba daitezke: sarobe@urnieta.eus.

## ANTZEZLANAREN INFORMAZIO GUZTIA AIURRI.EUS/KOMUNITATEA/GABONTXIRRITA WEBGUNEAN

AIURRI

Antzerkia "GABON TXIRRITA"

Urnietako BURUNTZA Taldea

UZT 01

**Antzezlana entseguetan murgilduta**

Saroben etengabea da egunotan "Gabon Txirrita" antzezlanean parte hartzen ari diren hogeita hamar aktoreen joan-etorria. Entsegu orokorrak, arropa eta makilaje probak... Eta horrela izango da uztailaren 15era arte. Orduan, udako etendaldia egingo dute, abuztuaren bukaera aldera entseguen azken txanpari gogotsu ekiteko. Aiurri astekariak antzezle batzuen iritzia jaso du.

GABON TXIRRITA

Xabier Letek idatzi eta 1982. urtean Buruntza antzerki taldeak taularatuak "Gabon Txirrita" obra berriro ikusteko aukera izango da irailaren Urnietan eta Donostian. Mikel Laskurain, Miren Gojenola, Jaione Jauregi eta Maribel

Urnietako Udalak gaur egunez duen aurreikuspena horixe da

## Etenetako igogailua prest legoke 2018rako

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Obrak iraun bitartean, zerbitzuari eusten ahaleginduko direla adierazi zuen **Mikel Pagola** alkateak: "Gaurko egunez ez daukagu bermatuta eraberritze lanek iraun bitartean eskaintzen diren kirol jarduerak guztiak mantentzen jarraitu ahalko dugunik". Garaia iritsi ahala argitzen joango da hori. Ahal dela taldekako kirol jarduerak kiroldegian bertan eskainiko dira. Banaka eskaintzen diren ikastaroak, ordea, herriko beste zenbait instalakuntzatarara bideratzea aztertzen ari dira. Nolanahi ere, Udalaren asmoa kirol jarduerak guztiak ahal dela kiroldegian bertan mantentzea da.

### ETENETA-SAN JUAN IGOGAILUA

Herriguneko behealde eta gailde hurbiltzeko igogailua eraikiko dute Eteneta elkartearen atzealdean. Lanak 2017ko udaberrian hasiko dira eta urte amaierarako amaitzea espero dute. La-



Igogailuaren kokapena, herrigunearen behealde eta gailde lotzeko.

*Igogailua eraikitzeke lanak 2017ko udaberrian hasi eta 2018rako amaituko dituzte*

nak gauzatzeko Udalak kreditu aldaketa egingo du, ondoren proiektua eguneratu eta, azkenik, obraren lizitazioa

martxan jarriko du. 2018 hasierarako, beraz, igogailua martxan legoke.

Pasa den udaberrian abiatu zen parte hartze prozesuan kiroldegiaren eraberritzea eta Eteneta-San Juan plaza arteko igogailua izan ziren herritarrek gehien bozkatu zituzten bi proposamenak.

## Julen Gabirondo Gipuzkoako txapelduna

Asteasuko Bulano baserriko belazean jokatu zuten, atzo, Gipuzkoako sega txapelketa. Ordubeteko lana egin behar zuten lau segalarik, eta lehia estua izan zen. Julen Gabirondo urnietarra izan zen azkenik garaile, 3.374 kilo belar ebakiz. 77 kiloko alde ateratzen Igor Esnaolari, alde txikia beraz. Jokin Etxeberria amasarra izan zen hirugarren, 3.030 kilo belar moztuta eta Arkaitz Arteagak itxi zuen sailkapena.



Julen Gabirondo urnietarra, Gipuzkoako sega txapelduna.

## Pilotalekuko taberna

Urnietako pilotalekuko taberna alokatzeko eskaintzak aurkezteko epea uztailaren 22ra arte luzatuko du Udalak. Lehen deialdia hutsik geratu eta gero, bigarren deialdia egin dute, desber-

dintasun handi batekin. Lehen, hileko 300 eurotik gorako eskaintzak aurkeztu behar ziren, eta, orain, berriz, 50 eurotik hasita. Baldintza guztiak ikusgai daude urnieta.eus webgunean.

## Lau kontratazio udan

Udalak zerbitzu lanetarako lau pertsona kontratatuko ditu, hiru hilabetez egun osoz lan egiteko. Uztailean

hasita lanean arituko dira pintore ofiziala, pintore peoi laguntzailea, igeltsero ofiziala eta igeltsero peoia.



## OROIMEN HISTORIKOA

# Kontzentrazio eremua pairatu zuen andoaindarra

Bruno Ballorca Gomez Andoainen jaio zen errepublikanoak bi urte nazismoak eduki zuen preso, Alemaniako kontzentrazio eremu batean. Haren memoria eta jasandako sufrimendua gogoratzeko,


pasa den apirilaren 30ean bere senitartekoak Andoainera hurbildu ziren. Frankismoak zapaldutako biktimen aldeko monumentuan ekitaldia egin zen.

Apirilaren 30ean Valladolidetik eta Frantziako estatuko hainbat lekutatik Ballorca Gomez familiako hainbat kide heldu ziren Andoainera. Hunkituta heldu ziren guztiak ere, Alfaro parkean Goiztirian eskulturaren aurrean egitekoa zen ekitaldi xumean parte hartzeko prest.

Ekimena Errenteriako La Ilusion elkarteak antolatu zuen; Gipuzkoan berrogei bat herritar izan ziren deportatuak nazismoak eraikitako kontzentrazio zelaietan, eta horiek jaiotako herrietan omenaldi ekitaldiak antolatzen ari da azken urteetan.

Urki dantza taldeko bi dantzarik eta txistulariak aurrekua eskaini zieten familiarrei, omenaldiari hasiera emanen. Floren Mariñelarena La Ilusion taldeko kideak hitza hartu zuen ondoren, Bruno Ballorcak askatasunaren alde jardun izana goraipatzeko: "Ohore bat da guretzat Andoainen jaiotako pertsona bat, guztion askatasunaren alde eta nazismoaren aurka borroka egin zuen pertsona, gogoratzea gaur; eta baita ere, zuek, familiarakoak, hona etorri izana. XX. mendean giza eskubideen urraketarik larriena gertatu zen nazien kontzentrazio zelaietan, eta Bruno Ballorca izan zen biktima horietako bat. Gaur egun bizi dugun askatasun egoera ez zaigu berez etorri, margaritak zelaian jaio ohi diren antzera, Bruno bezalako pertsonen sakrifizioari esker baizik, eta, beraz, zorretan gara berarekin".

Ana Carrere Andoaingo alkateak Bruno Ballorcaren familiarrei ongi etorria eman zien, Andoaingo herritarren izenean. Eskerrak eman zizkien, Brunoren memoria bizirik mantendu izan dutelako. "Bere historia pertsonala ezin dugu ahaztu, berreskuratu egin behar dugu geure memoriara. Berak eta bere antzeko biktimek duintasuna merezi



Bruno Ballorca Gomez andoaindarra nazien eskuetan egon zen, atxilotuta.

*Bruno Ballorca Gomez Andoainen jaio zen, 1922ko abenduaren 30ean, Kale Nagusiko 40. zenbakian*

*II. Mundu Gerratean zehar, naziek Frantzia okupatu ostean 20 urteko gaztea atxilotu zuten*

dute maila pertsonalean, eta baita ere maila kolektiboan, ez dezagun errepikatu iraganeko historia arbuia garria. Faxismoak gogor kolpatu zuen Europan, modu askotara; frankismoa izan zen Andoainen biktima ugariaren eragile, eta horiek denak gogorarazteko eraiki zen eskultura Alfaro parkeko leku honetan. Bruno ere faxis-

moaren aurka eta giza eskubideen alde jardun zuten herritarren zerrenda horretara gehitu behar dugu".

## GIZON ZUZEN ETA HUNKIBERA

Ekitaldia amaiturik, bertan izan ziren Bruno Ballorcaren bi semeek, Jean Pier eta Robe- rrek, aitari buruzko adierazpe- nak egin zizkioten Aiurri.

"Oso pozik gaude gure aitari, gaur, Andoainen egin zaion aitormenagatik. Zoritxarrez, Espainian oraindik ez daude ofizialki aitortuta ez gure aita ezta bere antzera nazismoa jasan zuten milaka errepublikanoak".

Aitak, kontzentrazio esparruetan bizitutako bizipenaren berri etxean sekula eman ez ziela, aitortu zuten bi anaiek. "Oso zuzena, diskretua eta hunkibera zen, eta berarentzat gorde zituen iraganeko bizipenak; iruditzen zaigu oso egoera traumatikoa bizitu zuela, eta horrexegatik nahi izan zuela ahaztu dena. Sekula ez zigun gorrotorako biderik eman; giza balore baikorretan hezi gintzen saiatu zen beti".

Andoainen egindako ekitaldiaren eta antzekoen beharra azpimarratu nahi izan zuten. "Gizartearen memoria kolektiboa indartzeko balio dute, eta gainera, gure familian gertatu den bezala, aitzakia polita izan ohi dira biktima horien ondorengo belaunaldiak galdezka has daitezen".

## BI URTEZ NAZIEN ESKUETAN

Bruno Ballorca Gomez Andoainen jaio zen, 1922ko abenduaren 30ean, Kale Nagusiko 40. zenbakian hain zuzen.

Burgosen jaiotako Pedro eta Ricarda zituen gurasoak. Aitaren ogibidea zela eta, hila- bete batzuk egin zituzten Andoainen, eta berehala Donostiara joan ziren. 1936an kolpe militarra gertatu zenerako Hendaian bizi zen familia. 14 urteko mutil koskorra zen Bruno orduan. II. Mundu Gerratean zehar, nazismoak Frantzia okupatu ostean, 20 urteko Bruno Ballorca gaztea atxilotu eta es Compiègne herrira (Pikardia erregioa, Frantziako iparralde, Paristik 65 kilometrorra) eraman zuten 1943ko urtarrilaren 24an. Bruno Ballorcak egun bakarra egin zuen Compiègeneko esparruan; izan ere, biharamu- nean, Sachsenhausen herriko (Brandeburgo, Alemania) kontzentrazio zelaira deportatu zuten. Nazismoak kontzentrazio zelai ugari eraiki zituen, eta bakoitzari bere egin- kizuna eman zion. Sachsenhauseneko, oposizio politiko konfinatzeko eta erailteko erabili zuten.

Ejertzito naziak honako giza taldeak pilatu zituen Compiègeneko esparruan: judutarrak, ijitoak, homosexualak, Jehovahko testiguak, eta 1939an hasitako gerran zehar prisionero egin zituzten beste milaka pertsona; horiekin batera, Espainiako estatutik Frantziara ihes egin zuten ehunka iheslari errepublikano. 1945ean 65.000 mila preso zeuzkaten bertan gatibu, eta ordurako 30.000 preso erail zituzten bertan.

Bertan bizi erregimen penagarrian bi urte igaro ostean, Ballorcak 1945eko maiatzaren 3an askatasuna lortu ahal izan zuen. Tropa sobietarrek desegin zuten kontzentrazio esparru hura, gerrate odoltsuaren azken egunetan.

Bruno Hendaian ezkondu zen 1949an, eta lau seme alaben aita izan zen. Familia Hendaian, Bordelen eta Tarbesen bizi izan zen. 1990ean hil zen.



Apirilaren 30ean Ballorcaren oinordekoak Andoainera etorri ziren.

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA  
**Aiurri**

# SANTIOAK 2016

## Astea ospakizun bete



2016, uztaila



# Keinu

- Festetako zapiak, blusak...
- Dantzarako arropa
- Baserritar jantziak
- Era guztietako bordatuak (txapelak, banderak...)

Kale Nagusia, 12. ANDOAIN  
637 283 224 - keinuandoain@gmail.com

[www.txapelasybordados.com](http://www.txapelasybordados.com) - [www.txapelaketabordatuak.eus](http://www.txapelaketabordatuak.eus)

Gora Santioak!!



# Halterofiliako emaitza bikainak plazara

**BANAKA NAHIZ TALDEAN, EMAITZA BIKAINAK ESKURATU DITU URTE OSOAN ZEHAR DANOK DANENA HALTEROFILIA TALDEAK. ERAKUSTALDIA EGIN AURRETIK, EUREK BOTAKO DUTE JAIEN HASIERA IRAGARRIKO DUEN SUZIRIA.**

Indarra bai, baina bereziki teknika ona behar da halterofilia kirola landu ahal izateko, "teknikarik gabe ezin baita pisurik altxa", adierazi dute Ion Ander Iriarte eta Susana Davila, Danok Danena halterofilia taldeko kide billabonatarrek. Gaztetxotan hasi ziren biak ere kirol hori lantzen; 13 urterekin Ion Ander, 14rekin Susana. 12 urte daramatza Ion Anderrek, 4 Susanak, eta lortutako emaitzekin pozarren egotearekin batera, etorkizunera begira ere badituzte helburuak. "Datorren denboraldian 150 kilotik gora altxatzea lortu nahiko nuke eta Espainiako txapelketan marka onak eskuratuta, Kirolgi beka jasotzeko aukera izatea. Beti izan behar dira helburu berriak buruan, horrek motibazioa gehitzen baitu", azaldu du Ion Anderrek. Susanaren aurtengo denboraldia bikaina izan da. Besteak beste, Malta lehian zen maiatzean, oso emaitza onak bereganatuz. Espainiako absolutuan 2. postua erdietsi zuen eta, berriki, Euskadiko marka ere hautsi du junior mailan. "Marka onak egiten jarraitzea gustatuko litzaidake. Santiotako erakustaldian bertan, 100 kilotik gora altxatzea", adierazi du. Kirolgi beka lortu du Susanak aurten, baita Espainiako beste bat ere. Madrileran joan eta halterofilian sakontzen jarraitzeko eskaera egin du eskolan. Erantzunaren zain dago. Abenduan Europako junior txapelketan hartuko du parte eta oporraldiaren ondoren txapelketa hori buru-belarri prestatzen hastekotan da. Halterofiliaren aitzakian, Peru, Polonia, Kroazia, Malta edota Suezia bisitatzeko aukera izan du azken urteotan Susanak. Frantzia eta Suezian izan zen Ion Ander. Kirolean emaitza onak lortu eta aurrera egiteko, sekreturik ez dagoela aitortu dute, "lana gogotik egitea".

## PLAZAREN ERDIRA

Pozarren eta oso esker oneko azaldu dira Santio festetan txupinazoa botatzeko aukera eskaini dietelako. "Zulo batean



Susana Davila eta Ion Ander Iriarte, 150 kiloko barrarekin.

## BATIS KORTAJARENARI ESKERRAK

Batis Kortajarena entrenatzaileari eskerrak eman nahi dizkiote Susana eta Ion Anderrek, "beti gure ondoan eta atzetik ere lanean aritzen delako. Bera gabe ez genukeen lortu duguna lortuko. Ondo pasa itzazu Santio festak eta deskantsa ezazu".

sartuta bezala aritu izan gara beti eta orain artean gure kirola ez da gehiegirik baloratu. Guretzat oso garrantzitsua da plazaren erdian, herritar guztien aurrean azaltzea. Horixe nahi izan dugu beti eta eskerrak eman nahi dizkiegu aukera hori eman digutenei", azaldu dute. Talde guztiak denboraldi osoan zehar lortutako emaitza onak ospatuko dituzte modu horretan, baina Susana Davilaren lana nabarmenduko dute bereziki, bere lorpen bikainez gain, Villa-

bona eta Zizurkilgo izena urrutira eramanduelako. Ondorioz, Susanak botako du suziria, taldekideak alboan dituela. Txupinazoa eta gero, Errebote plazan bertan eskainiko dute halterofilia erakustaldia eta poz berezia ematen die horrek. "Aurreko urteetan ere jende asko etorri izan da beti halterofiliako proba ikustera, baina Errebote plazaren erdi-erdian aritzea oso berezia da guretzat", azaldu du Ion Anderrek. Susanak, berriz, herritarrek kirola ezagutzera animatu ditu, "gustura hartuko genituzke gaztetxoak taldean eta saioa ikusi ondoren, entrenamenduetara etortzeko deia luzatuko genieke". 9 urtetik aurrera hasten dira gazteak halterofilian. 13 urtera bitarte teknika lantzen dute eta 14 urtetik aurrera hasten dira pisuarekin.

## FESTETARAKO GOGOZ

Halterofilia gutxiengoaren kirola dela uste dute eta gazteak ez direla gertura-

## AZALEKO IRUDIA, FLORI GARCIARENA

Flori Garcia Corchado billabonatarrek irabazi du Udalak bideratutako egitarauen azal lehiaketa. 'Villabonako besamotza' ren irudi ezaguna jasotzen du Floriren lanak, margo akrilikoekin margotu du, serigrafia teknika baliatuz. Aurpegiak eta aurpegiarak marraztea oso zaila iruditzen bazaio ere, ausartu egin da eta emaitza ona eman dio. Villabonako pintura ikastaroetan hartzen du parte 2009az geroztik. Irabazleaz gain, beste bi lan ere aurkeztu ditu Florik lehiaketara, "niri agian gehiago gustatzen zitzaizkidan besteak, baina epaimahaiak lan honen alde egin du. Ez dut lehiaketara aurkezteko ohiturarik eta pozarren nago, izugarriko ilusioa egin dit irabazi egin dudala jakiteak", adierazi du.



tzen gogorra izango delakoan. Eta bai, hasieran kirol gogorra dela diote, baina pisuarekin hasitakoan batez ere, oso polita dela. "Bakoitzaren mugak agerian jartzen ditu kirol honek eta egunetik egunera pauso berri bat eman nahi izaten dugu. Oso motibagarria da".

Urte guztian zehar gogor lanean aritu eta gero, merezitako atsedendaldia hartuko dute orain. Kirolariak ez ezik, aukera dutenean, festan ibiltzea ere gustatzen zaie eta gogotsu daude Santioei begira. Ion Anderrek gazte eguna gogoko du. Iaz karroza atera zuten eta ekimen hori indartzea gustatuko litzaiotke. Susanak koadrilen bazkaria eta kalejira ditu kuttunenak. Ondo pasa!

**Santio jaiak** **ondo igaro!**

- Koloreko fotokopiak eta planoak
- Fax zerbitzua
- Inprimakiak oro har

**linta**

- Azaleztapenak
- Eztei gonbidapenak
- Inpresio digitala
- Kamiseta inprimaketa

**inprimategia**

Kale Nagusia, 31 - 20150 VILLABONA  
Tel./faxa: 943 690 604 - tintainpri@gmail.com

**ARJINDU**  
FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA

943 69 31 13

Ondo pasa festetan!

Errota, 7-behea  
20150 Villabona

**Boutique MP**

Ondo pasa Santiotan!

Kale Berria, 12 - Villabona  
943 690 865



# Santiotan kantari, egunpasa polita

**EUSKAL KANTA ETA DANTZAK UZTARTUKO DITU SANTIOTAN KANTARI EKIMENAK UZTAILAREN 30EAN, FESTAK AMAITU BEZPERAN. ERRITMOZ ETA KANTU GOXOZ BETETAKO EKIMEN ALAIA IZANGO DA.**

Iaz Iruñeko San Ferminetan kantuan zebilen talde handi bat ikusita, Juanjo Irazusta billabonatarrari ekimen hura herrira ekartzeko gogoia piztu zitzaion. Handik denbora batera, herritar talde bat elkartu eta ideiarri forma ematen hasi ziren. Musikan adituak diren Asier Vitoria, Iñaki Zalakain eta Agustin Laskurainek hartu zuten ekimenaren alderdi musikala antolatu eta zaintzeko ardura. Eta ekainaren 1ean hasita, hama-bost egunero, Aljibean elkartu dira musikariek begi handiz eta belarri goxoz aukeratu dituzten hamasei kantuak entseatzera. Euskal kantutegiko doinu ezagunak dira, ederrak eta alaiak, festa girokoak. Uztailaren 30ean, kantari eta musikariren artean 140 pertsona elkartuko direla aurreikusten dute antolatzaileek. Euskal kantuez gain, dantzak ere ekimenaren osagarri izango dira eta abestearekin batera, euskal dantza ezberdinekin alaituko dute bidea.

## HURRENGO ENTSEGUA, UZTAILAREN 20AN

Kantari-dantzari eta musikariei, Villabonako Erraldoi, buruhandi eta ipotxen konpartsa nahiz Jeronimo Loatzo musika eskolako dultzaineroen taldea ere gehituko zaie egun horretan, oraindik eta kolore, bizitasun nahiz doinu gehiago erantsiz. Euskal kantu eta dantzaren inguruko egunpasa polita izango da, adin guztietako herritarrei irekia. Oraindik ere zabalik dago parte hartzeko aukera. Uztailaren 20an entsegu orokorra izango da Zatorran, arratsaldeko 20:00etan, musikariekin batera, eta Santiotako kalejiran parte hartu nahi duen orok, zabalik aurkituko ditu bertako ateak.

## ERROMERIA EGUNAREKIN UZTARTUTA

Uztailaren 30ean, goizeko 11:30etan aterako dira parte hartzaileak Txermingo ikastolatik. Kaleberria zeharkatuko dute goiz eta eguerdian zehar, Santiago



Juanjo Irazusta, Asier Vitoria, Aitor Landa, Juan Inazio Sarasola, Agustin Laskurain, Bixente Olasagasti, Maite Barandiaran eta Iñaki Zalakain, Santiotan kantari ekimeneko antolatzaileak.

egoitzaraino, bidean hainbat geldialdi egin eta kantuak nahiz dantza ezberdinak eskainiz. Ikastola azpian bazkalduko dute gero eta arratsaldean, Kaleberri eta Nagusitik barrena, Errebote plaza-raino joango dira. Lauzprobost kantu

### KANTUTEGIA

Hauexek prestatzen ari diren kantuak:

- Azken dantza hau
- Aita semeak
- Baratze bat
- Ene maita nauzu
- Gogoaren baitan
- Guk euskaraz
- Kattalintxu
- Konplize ditut eta
- Limosnatxo bat
- Neskatxa maite
- Pello Joxepe
- Trapu zaharrak
- Triste bizi naiz eta
- Txanpon baten truke
- Udako egunak
- Mendian gora
- Gure esku dago

abestuko dituzte bertan eta antolatzaileen nahia, plazan bildutako herritarrek ere eurekin batera abestea litzateke. Santiotan kantari ekimenarekin batera, Erromeria eguna ere izango da uztailaren 30ean Villabonan eta bi festak uzartu egin nahi dituzte. Erromeria giroko jantziak jantziko dituzte, beraz, kantari eta dantzariak ere.

## BAZKARIRAKO IZEN-EMATEA

Kalejiran zehar, bi sagardo kupel garraiatuko dira, gainean kantuen hitzak proiektatuko dituen pantaila izango duelarik. Izan ere, antolatzaileek ez dute kantariak paperak eskuan dituztela ateratzerik nahi eta modu horretan, gainera, ikusleek ere kantuak errazago jarraitzeko aukera izango dute.

## VILLABONAKO ERRALDOIEN MARTXA, DULTZAINAREKIN

Antzina, Luis Uharretxena billabonatar musikariak konposatuko zuen seguruenik Villabonako Erraldoien martxa. Dirudie-nez, dultzainarekin jotzeko pieza zen, baina urteak aurrera behintzat, klarinete doinuarekin egin zen ezagun Villabonako kaleetan. Aspaldiko urteetan, ez zen Erraldoien martxarik jotzen eta aurtun, Jeronimo Loatzo musika eskolako dultzainero taldeak berreskuratu ondoren, kalez kale entzun ahal izango da pieza alai, dultzainaren doinuean. Jeronimo taldeko kideek, Iñaki Salvador dultzaina irakasleari aipamen berezia egin nahi diote, saiakera handia egin duelako kantu hori taldekideei erakusten.

Uztailaren 30ean Txermingo ikastola azpian egingo den bazkaria aukerakoa izango da. Bertan bazkaldu nahi duenak, uztailaren 20ko entsegu orokorrean eman beharko du izena. Bazkaria eta kalejirako kupelen ordaina 25 eurokoa izango da.



Hainbat parte hartzaile, ekainaren 29ko entseguan, Aljibean kantari.

## BASAJAUN LIBURUDENDA

[basajaunliburudenda@gmail.com](mailto:basajaunliburudenda@gmail.com)

Testu liburuak enkargatzeko garaia heldu da.  
Zozketa mundiala liburuak enkargatzen dituzuenon artean.  
Liburuak forratuak eraman ditzatezu prezio berdinean.  
Ikastetxe eta kurtso guztietako testu-liburuak saltzen dira.

**Ondo pasa Santiotan!**

Eskolako mantalak  
Jolas didaktikoak  
Eskolarako tresnak

Nagusia, 29 - 20150 VILLABONA - Tel./faxa: 943 691 651

## OGI ZURI



## OGI GOXO

Ondo  
pasa  
jaietan

**OKINDEGIA, S.L.**

Lizarra-etxea, 32.  
Elizmendi auzoa. ASTEASU  
☎ 943 691 896

**OGI-ZURI**

Bulandegi bidea 1-3.  
ZIZURKIL  
☎ 943 691 000

**OGI-GOXO**

Kale Nagusia, 26.  
AMASA-VILLABONA  
☎ 943 693 294

**Ogi berezi eta artisauak - Etxerainoko zerbitzua**

# Santioak Villabonan

## Uztailak 24

### IGANDEA, JAIEN HASIERA

- 09:00** Plater tiraketa. Loatzo tiro elkar-tearen eskutik, Atxutu-Mandoegi zelaian.
- 12:00** Txupinazoa. Danok Danena halterofilia taldearen eskutik, Iraunkorrek txarangak alaituta.
- 12:15** Buruhandi, ipotx eta erraldoien kalejira, Loatzo musika eskolako Jeronimo dultzaina taldeak alaituta.
- 12:30** Halterofiliako III. Liga Nazionala. VI. Santio Saria, Erreboteko plazan. Liga Nazionalen Danok Danena taldeak (Villabona-Zizurkil) parte hartuko du, eta Santio Sarian, gonbidatutako hainbat taldek.
- 14:00** Herri bazkaria, Erreboteko plazan.
- 16:00** Pilota: Frontenisa, Olaederrako frontoian.
- 16:00** Bola tiraldia, helduentzat, Behar Zana elkarteko bola taldearen eskutik, Olaederrako bolatokian.
- 16:30** Perkusio emanaldi ibiltaria, Erreboteko plazatik abiatuta. Zo-zongó taldea: Kolpez Blai.
- 17:00** Pilota: Paxaka, Olaederrako frontoian.
- 19:30** Futbito finala, Erreboteko plazan.
- 23:30** Dantzaldia, Iratzar taldearen eskutik, Erreboteko plazan.
- 01:00** Gazte garaiak oroituz, 40 urtetik gorakoentzako dj emanaldia, Txistulari plazan.



## Uztailak 25

### ASTELEHENA, SANTIO EGUNA

- 08:00** Diana, dultzaineroek alaituta.
- 10:30** XXXVI Herri krosa haurrentzat, Zumbeltz elkartearen eskutik, Alzinzin plazatik abiatuta.
- 11:00** XXXVI Herri krosa helduentzat,

Zumbeltz elkartearen eskutik, Alzinzin plazatik abiatuta.

- 11:15** Udalbatzaren desfilea, Loatzo musika eskolako txistulari taldeak lagunduta, Santiago egoitzara bisita eginez.
- 12:15** Sari banaketa: Atari bizi eta programaren portada lehiaketak, Erreboteko plazan.
- 12:30** Buruhandi, ipotx eta erraldoien kalejira, Loatzo musika eskolako txistulari taldeak alaituta, Erreboteko plazatik abiatuta.
- 13:30** Soka-dantza, Oinkari dantza taldearen eskutik, Erreboteko plazan.
- 18:00** Sokamuturra, Erreboteko plazan, Loatzo musika eskolako Jeronimo dultzaina taldeak alaituta.
- 22:00** Oinkari dantza eskolaren emanaldia Olaederra kiroldegian.
- 00:00** Dantzaldia, Akerbeltz taldearen eskutik, Erreboteko plazan.

## Uztailak 26

### ASTEARTEA, SANTANA EGUNA

- 09:00** Diana, dultzaineroek alaituta.
- 11:00** Patata tortilla lehiaketa, 11-17 urte artekoentzat, Txermingo ikastolaren azpian.
- 11:30** Marrazki lehiaketa haurrentzat, Berdura plazan, Oria merkatari elkartearen eskutik.
- 13:00** Buruhandi, ipotx eta erraldoien kalejira, Loatzo musika eskolako txistulari taldeak alaituta, Erreboteko plazatik abiatuta.
- 19:30** Txekor jatea eta sagardo dastaketa, Zumbeltz elkartearen eskutik, Txermingo ikastolan.
- 23:00** Dantzaldia, Joselu anaiak taldearen eskutik, Erreboteko plazan.

## Uztailak 27

### ASTEAZKENA, GAZTE ETA JUBILATUEN EGUNA

- 10:00** Toka txapelketa, Salbadora jubilatuen etxearen eskutik, Olaederra kiroldegia-aren ondoan.
- 11:00** Animalien ikuskizuna haurrentzat, Gorritirekin, Olaederra kiroldegia-aren ondoan.
- 11:00** Jubilatuen eskularen eta margoen erakusketa, Berdura plazan.
- 12:30** Buruhandi, ipotx eta erraldoien kalejira, Loatzo musika eskolako Jeronimo dultzaina taldeak alaituta. Olaederra kiroldegitik.
- 14:00** Jubilatuen bazkaria, eta ondoren dantzaldia Xabier Zubeldia eta taldearekin, Txermingo ikastolan.
- 14:30** Bazkaria, Onddo gazte asanblada-aren eskutik, Berdura plazan.

**AMASA**  
OKINDEGIA - KAFETEGIA

**Gora Santioak**

Berria, 64 - Villabona  
943 693 831

**SAHATSA**  
BELAR-DENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA

*Jai zoriontsuak igaro*

**KONTSULTA NATURISTA** | Kale Berria, 50  
Villabona  
943 694 279



# Uztailak 24-31

- 16:15** Zunba herrikoa, Txistulari plazan.  
**17:00** Gazteen poteo-kalejira, Orkresta Nazionalarekin, Erreboteko plaza-tik abiatuta.  
**17:30** Bola tiraldia, haurrentzat, Behar Zana elkarteko bola taldearen eskutik, Olaederrako bolatokian.  
**18:00** Cycling mini-maratoia, Txistulari plazan.  
**18:00** Pilota: gomazko paletako eta eskuzko afizionatuen finala, Bearzana pilotalekuan.  
**23:00** Kontzertua: Izeberg eta Su Ta Gar taldeak, Erreboteko plazan.

## Uztailak 28

**OSTEGUNA, ATSEDEN EGUNA**

## Uztailak 29

**OSTIRALA, KOADRILEN EGUNA-**

- 14:30** Koadrilen bazkaria Etxeondo parkean.  
**17:00** Koadrilen kalejira, Incansables txarangarekin.  
**20:00** Dantzaldia, Tximeleta taldearen eskutik, Erreboteko plazan.  
**21:30** Kafe eta likore dastaketa musikarekin jubilatuentzat, DJ Txispyren musikak alaituta, Jubilatu biltokian.

- 00:00** Zezen suzkoa, Erreboteko plazan.  
**00:30** Dantzaldia, Tximeleta taldearen eskutik, Erreboteko plazan.

## Uztailak 30

**LARUNBATA, ERROMERI EGUNA**

- 10:00** Xake jokoa helduentzat. XXXI. Santio txapelketa. "J.M. Ezkai memoria", Billabona Xake Joku elkartearen eskutik, Txistulari plazan.  
**10:00** V. Eskulangintza azoka, Malkar plazan, Solano musika eskolako trikitilariak alaituta.  
**11:30** Santiotan kantari kantujira, Txermingo ikastolatik abiatuta.  
**16:30** Xake jokoa haurrentzat, Billabona Xake Joku elkartearen eskutik, Txistulari plazan.  
 Erromeri eguna: Oinkari dantza taldeak antolatuta, Erreboteko plazan.  
**17:30** Erromeri eguna: Kalejira, Lizartzako Isk&bila txarangaren eskutik.  
**18:00** Erromeri eguna: Sagardo eta pin-txo dastaketa, Erreboteko plazan.  
**18:00** Santiotan Kantari kantujira, Erreboteko plaza-tik abiatuta.  
**19:00** Erromeri eguna: Elustondo trikitilariak.  
**22:30** Erromeri eguna: Bertsolariak. Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Iñaki Murua, Millan Telleria,

- Sebastian Lizaso eta Xabier Euzkitze. Gai jartzailea: Amaia Agirre.  
**00:00** Erromeria: Izer eta Alabier trikitilariak.  
**02:00** Erromeri eguna: Larrain dantza herrikoa.  
**02:30** Erromeri eguna: Laket taldea.

## Uztailak 31

**IGANDEA, SAN IGNAZIO EGUNA**

- 08:00** Diana, dultzaineroek alaituta.  
**10:30** Ur parkea Txistulari plazan.  
**11:30** Errebotea: Villabona-Hazparne 87. norgehiagoka, Behar Zana kirol elkartearen eskutik.  
**12:30** Erraldoi, ipotx eta buruhandien kalejira, eta ondoren emanaldia Malkar plazan. Donostiako Irrintzi konpartsak eta Villabonako erraldoi, ipotx eta buruhandien parte hartuko dute.  
**18:00** Sokamuturra, Loatzo musika eskolako Jeronimo dultzaina taldeak alaituta, Erreboteko plazan.  
**19:30** Rock&roll emanaldi ibiltaria: Roc-kalean.  
**23:00** Santioak irudietan. Herritarrek helarazitako argazkien proiektzioa, Erreboteko plazan.  
**23:30** Dantzaldia, Joxe Mendizabalen eskutik.

### HERRI BAZKARIA, UZTAILAREN 24AN, IGANDEAN

Santio festak igandearrekin abiatuko direnez, txupinazoa eguerdian egokituko da aurtengoan. Festetako lehen egunean, bazkari herrikoa egingo da Erreboteko plazan. Bertan parte hartu ahal izateko, **herribazkaria24@gmail.com** e-mailean eman daiteke izena, uztailearen 22ko eguerdiko 12:00ak baino lehen (koadrilen izena eta jende kopurua adierazi behar da). "Bazkari-rako ez da inolako hurrenkerarik, baina gutxi gorabeherako jende kopurua jakin behar dugu, mahaia hobeto antolatu ahal izateko. Izen-ematea modu presentziazalean egin nahi izatekotan, uztailearen 22an egin behar da, 09:00etatik 12:00etara, kultura saileko bulegoan", adierazi dute antolatzaileek.

### JAIEN EGUNEROKO JARRAIPENA AIURRI.EUS WEBGUNEAN

Urtero bezala, Santio festen eta gainerako eskualdeko udako festen jarraipena egingo du Aiurri aldizkariak [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) gunean nahiz sare sozialetan. Bertan festetako ekintzen berri azaltzarekin batera, argazki eta bideoak ere ikusi ahal izango dira.

**Errota txiki...**



Razioak  
Entsaladak  
Bokatak...



Errota, 2-behea  
Villabona

**aukera ezberdin bat ...**

**BENITO**  
HARATEGIA  
URDAITEGIA

*Gora Santio jaiak*

Arroa Kalea, 4  
VILLABONA  
☎ 943 691 350



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Euskara Zuzendaritza

**Eizmendi Anaiak**

- Kirol eta mendiko arropa eta materiala
- Ehizeko arropa
- Armen salmenta eta konponketa
- Kartutxoaren eskaintza handia

Berria 19-21 • 20.150 Villabona  
Tel.: 943 692 623 / 688 844 983 • Faxa: 943 693 044




**Ondo pasa festetan!**



# Haur nahiz helduentzako bola tiraldiak, bolatoki berrian

**2014AN JARRI ZEN ABIAN BEHAR ZANA BOLA TALDEA. EPE LABURREAN PAUSO UGARI EMAN DUTE ETA SANTIO FESTEN BAITAN, HAUR ETA HELDUEI ZUZENDUTAKO SAIOAK ANTOLATUKO DITUZTE BOLATOKIAN.**

32 urte daramatza Joxe Mari Etxebeste bola jokoa, 8 urte zituela bota zuen bola lehen aldiz, "aita edota aitona ere ibiltzen ziren jokoan eta handik nator ni. Baserria Martutene eta Ergobi artean daukagu eta etxean ikasi nuen; bertan baikenuen bola eta baita bolatoki txiki bat ere. Asteburutan bolatoki bolatoki ibiltzen ginen eta elkarte bezala, beti Ategorrietako klubarekin jokatu izan nuen", adierazi du. Villabonara bizitzera etorritakoan, Behar Zana elkartearen bolatokia izan zela jakin zuen eta hari horri tiraka sortu zuten gerora Behar Zana bola taldea. Beatriz Unzue herritarrak, berriz, taldea sortu aurretik, ez zekien bola jokoa. "Lehenengo aldiz Mutiloan ikusi nuen tiraldi bat eta gerora, sagardotegiko bazkari baten ondoren, Ereñozuko bolatokian bota nuen lehenengoz. Neurria hartutakoan, hobetzen jarraitzeko gogoia pizten du bola jokoa eta hortxe gabiltza, gustura!", azaldu du. Puntua harrapatutakoan, kirol zailegia ez dela dio Joxemarik; edozeinek jokatzeko modukoa.

## EMAKUME ADINA GIZON

Villabonan sortutako taldeak badu berezitasun bat. 22 kide daude federatuta; erdiak emakumeak eta beste erdiak gizonak. "Hori ez da beste inon ikusten. Hauxe da bolari emakume gehien duen taldea. Hementxe dago berdintasuna", dio Joxe Marik. Umeak ere ari dira pixkanaka kirola ezagutzen eta epe laburrean, infantil mailan aritzeko aukera izango dute. Bola jokoa ezagutarazteko, saiakera berezia egin dute aurten taldekideek. Herriko ikastetxeetako haurrekin lehenengoz, nahiz Eskola Kirola ekimenaren baitan hirugarrenez, saio bereziak antolatu baitituzte. Erantzun ona izan dute gaztetxoeren eskutik.

Gaztetxoak ez ezik, herritar helduak ere bolatokia erabiltzeko gogotsu



Joxe Mari Etxebeste eta Beatriz Unzue, bolatokian.

## Kirol gunearen erdian, bolatokia indartzea da taldekideen helburua

daudela sumatzen dute bola taldeko kideek, "gogoia erakusten digute", eta zain-zain daude Udalarekin hitzarmena sinatu ondoren materiala nahi duenaren eskura kiroldegian jartzeko. "Zerbitzu bat gehiago izango litzateke. Modu horretan, guri eskatu gabe, edozeinek bota ahal izango bailuke bola", jakinarazi dute. Behin aukera hori eskura jarritakoan, denean bezala noski, ikasi egin behar bola botatzen ere. Hizlarien esanetan, indarra baino teknika behar da horretarako, "bolari gurpilaren keina ematean dago gakoa; bola norabide

onean bota behar da, ez besterik. Indarra ez da hain garrantzitsua; bola ondo bideratuz gero, beti ailegatuko baita".

## MAILA HOBETZEN

Talde bezala emaitza onak lortu dituzte lehen urte hauetan. "Lehenengo urtean bi talde atera ziren: neska nahiz mutilena. Historian lehenengoz, Villabonan sortu zen nesken aurreko bola taldea eta mugimendu horri esker, gerora baita beste bolatoki batzuetan ere. Geroztik, txapelketa guztiak neska nahiz mutilentzat antolatzen dira", azaldu dute. Aurtengoan, Beatrizek hiru bigarrenengo postu lortu ditu nesken sailean. "Oso pozik nago pertsonalki, bi urte soilik baitaramatza eta bi urteetan joan bainaz Gipuzkoa nahiz Euskadiko txapelketetara", adierazi du Beatrizek. Gustu-

## BI SAIO SANTIOTAN

Santio festen baitan, 2014. urtean antolatu zuen Behar Zana bola taldeak lehen aldiz bola tiraldia eta berrikuntza handia izan zen. Herritar askok hartu zuen parte. Iaz, Konpartsa-rekin batera egokitu arren, jende asko gerturatu zen berriz ere. Bi txanda horietan bolatoki ibiltaria jarri zuten, baina aurten, benetako bolatokia izanda, oraindik eta jende gehiago espero dute. Helduei nahiz haurrei zuzenduta, bi txanda antolatu dituzte:

■ **Uztailak 24, arratsaldean:** Gipuzkoa mailako tiraldi ofiziala, helduei zuzendua. Herritarrek parte hartzeko aukera izango dute.

■ **Uztailak 27, arratsaldean:** Haurrei zuzendutako tiraldia.

\*Udazkenerako torneo polit bat antolatzeko asmotan dabilta: Iraileko azken bi larunbaretan, bikotekako Gipuzkoako txapelketa, hain zuzen ere.



**Ondo pasa festetan!**

Deitu eta hartu txanda konpromezurik gabe

Villabona Optika Audiologia  
zugandik gertu

- ✓ %25eko deskontua 2. audifonoan.
- ✓ 5 urte arte bermea luzatzeko aukera.
- ✓ 12 hilabetetan finantziatzeko aukera.




**Kale Berria 23A**  
**Villabona**  
**943 111 840**

# Koadrilen eguneko mahaien banaketa, zozketa bidez

Jai batzordeak hala erabakita, uztailearen 29an izango den Koadrilen eguneko bazkarirako mahai eta aulkien banaketaren hurrenkera zozketa bidez gauzatuko da aurtengoan. Izen-ematea [etxeondobazkaria@gmail.com](mailto:etxeondobazkaria@gmail.com) e-mailean egitea gomendatu dute antolatzaileek. "Horretarako, mezuan koadrilaren izena jarri behar da, eta zenbat lagun joango diren bazkaltzera. Telefono mugikorra jartzea ere baliozkoa zaigu. E-mailez izena emateko azken eguna uztailearen 22an izango da, eguerdiko 12:00etan". Kultura saileko bulegoan ere eman daiteke izena (e-mailez izena ematea gomendatzen da, dena den), eta horrela egitekotan, uztailearen 22an

egin beharko da, 09:00etatik 12:00etara. Koadrila bakoitzari, urtero legez, zenbaki bat esleituko zaio, baina mahaiak ez da zenbaki horren arabera eskuratuko. Txupinazoaren momentuan, zozketa egingo da eta bertan ateratzen den zenbakiaren arabera antolatuko da mahaien banaketa. Esaterako, 25 zenbakia aterako balitz, 25. zenbakidun koadrila izango da mahai eta aulkia jasotzen lehenengoa, 26a bigarrena, 27a hirugarrena eta segidan gainerako guztiak. E-mailez, prentsaren bidez, udaletxe azpiko tabloian eta Villabonako Udalaren webgunearen bidez jakinaraziko da mahaiak jasotzeko ordena.



Bazkariaren ondoren koadrilen kalejira, lazko irudia.

## GUTUNA

### REMIRI OMENALDIA, UZTAILAREN 31N

Uztailearen 31n zazpi urte beteko dira. 2009ko egun hartan, Remi udal hautetsi gisa, herriak aukeratutako ordezkari bezala ari zen lanean. Helburu argia zuen: jai gunean Ertzaintzaren presentziak eragiten zuen tentsioa ez zedila harago joan eta jaiak bakean amaitu zitezela. Baina ez zioten utzi! Bihotza leherrarazi zioten!

Orduz gero, urtero Remiren izena eta izana gogoratzeko elkartzen gara Santiotako azken egunean, senide, lagun eta ehundaka herritarrekin batera.

Iaz arte, udal ordezkariak ere ondoan izan ditugu beti. Baina udal gobernuan aldaketa izan zenetik, bestelakoa izan da herri honetan agintzen dutenen jarrera. Iaz EAJ-ren gobernuak Remiren omenaldia jai programatik kentzea erabaki zuen, aldebakarrez. Hurradura eta amorrua eragin zizun erabakia izan zen.

Eta aurten ere berdin. Jai batzordean omenaldia egingo gurela iragarri genuenean, jai programatik kanpo beharko zuela erantzun

zizun Iban Agirre orduan alkate zenak, ekitaldi politikoa zela argudiatuta.

Urtebete honetan EAJkoek ez dute inolako urratsik eman Remiri aitortza egin eta bere kasua argitzeko. Aldiz, herriari bizkar eman eta harrokeriaz jokatzeko jarraitzen dute, alkate berriak erakutsi duen moduan. Baina gure ustez, bizikidetzaren alde lan egitea guztioi dagokigun zeregina da, eta are gehiago alkate bati.

Nori egiten dio kalte, egia, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa eskatzeak? Ezin dugu ulertu inor horren kontra egon ahal izatea.

Horregatik, guk ez diogu inoiz uko egingo aldarrikapen horri. Gainera, bide horretan badakigu amasar eta billabonatar asko bidelagun ditugula eta izango ditugula.

Hortaz, aurten ere hilaren 31n, iluntzeko 20:00etan, Remiren izena daraman ibilbidean hitzordu bat dugu denok!

**'Remi gogoan' ekimena**



**ALBIZU** **KIROK**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Kale Nagusia, 2 - Tel.: 943 693 131  
20150 VILLABONA

Jai zoriontsuak igaro

**Iraola**

Aholkularitza - Artezkaritza

**ENPRESEN AHOLKULARITZA**

Kale Nagusia, 37 - AMASA-VILLABONA  
Tel.: 943 692 763 • Faxa: 943 692 774

**Sanz**  
MARGOAK

**GORA SANTIOAK!!**

Pinturak orokorrean  
Fatxaden birgaitze lanak

**Sergio Sanz Gorostidi**  
689 646 579 / 943 690 568  
info@pinturasanz.es  
www.pinturasanz.es  
Villabona

**FLEMING IKASTETXEA**

Otelarre, 35  
20150 VILLABONA  
Tel./Faxa: 943 691 413  
012277aa@hezkuntza.net  
Arroa z/g. Tel.: 943 693512

[www.fleming.hezkuntza.net](http://www.fleming.hezkuntza.net)

**ERNIOBEA BHI**

Otelarre, 35  
20150 VILLABONA  
Tel./Faxa: 943 693 733  
012952aa@hezkuntza.net

**Erniobea B.H.I.**

**Villabona**

[www.erniobea.eus](http://www.erniobea.eus)

**ONDO PASA SANTIOTAN!**

# Lain taldeko kideak, agurraren atarian

**GAZTETXOTAN ELKARTU ZITUEN MUSIKAK, ETA FAMILIA OSATUTA ARITU DIRA MUSIKAGINTZAN LAIN TALDEKO KIDEAK. AZAROAN EMANGO DUTE AGURREKO KONZERTUA, BONBERENEAN.**

**Lain musika taldea uztera zoaztela iragarri duzue berriki. Nolatan hartu duzue erabaki hori?**

**Javi Rivero:** Sei pertsonak osatzen dugu taldea. Taldea osatu genuenean, oso gazteak ginen, aparteko ardurarik ez genuen eta erraza zen entseguetarako elkartzea. Heltzen joan garen heinean, geroz eta zailagoa izan da ordutegiak bateratzea. Esfortzu handia eskatzen zigun taldearentzako denbora ateratzea, eta horrek neke puntu bat ekarri digu. Gustura bukatutako lanarekin batera agur esatea erabaki dugu. Bonberenean eskainiko dugu agurreko kontzertua, azaroan.

**Egin dezagun Lain taldearen ibilbidearen errebaso txiki bat. 2008ko Gaztea Saria izan zen zuen abiapuntua...**

**Kristina Aranzabe:** 2008an hasi ginen modu serioagoan. Horren aurretik, Leire Berasaluze eta biok hasi ginen, erdi jolasean. Musika eskolan ere, saioak egiten genituen Javik eta hirurok. Gazteako maketa lehiaketa irabaztearen ondorioz etorri zen taldea sortzeko ideia sendotzea. Gure kankak sortzen ere hasi ginen. Jolas izatetik zerbait serioagoa izatera pasa zen.

**Maketa lehiaketako garaipena, BBK Live jaialdian jotzea..., egun borobilak izan ziren Lain taldearentzat. Nolako oroitzapenak dituzue?**

**K.A.:** Laino batean murgilduta ibili ginen. Gauza bat bestearen atzetik etorri zitzaigun; maketa lehiaketa, Gaztea saria, BBK live..., ez ginen gertatzen ari zitzaigun guztiaren kontziente. Disketeak, kontzertuak..., ez genuen mundu hori ezagutzen. Ikaragarri pozik ibili ginen, baina gaur egun gertatuko balitzaigu, beste modu batera aprobetxatuko genuke aukera hura.

**J.R.:** Gaztetasunetik hartutako erabaki haiek beste modu batera ikusten ditugu orain. Askok ikasteko balio izan zigun.

**Lehendabiziko maketaren ondoren hiru diska etorri ziren. Kontaiguzue...**



Joseba de Arriba, Mikel Benito, Kristina Aranzabe, Javi Rivero eta Jon Altuna. Leire Berasaluze falta da.

**“Lain guretzat familia da. Hemen ateratzen ditugu gure alderdi onak eta txarrak”**

**J.R.:** 2009an kaleratu genuen lehendabizikoa. Bi urte geroago etorri zen bigarrena, eta hortxe egin genuen topo erre-alitatearekin. Ordura arteko laino hura desagertzen joan zen. Konturatzen joan ginen egunero borrokatu behar zela kontzertuak aterako baziren. Bestalde, Imanolek taldea utzi eta Mikel Benito sartu zen. Garbi genuen, ordea, taldeak indar handia zuela bi gitarrekin eta Joseba de Amigo gehitu zitzaigun. Taldearen birsortzea etorri zen eta 2015ean Tximeletak diskoa jaio zen.

**Zuen jarraitzaile mota ere aldatzen joan da urte hauetan zehar...**

**K.A.:** Hasieran jende gaztea gerturatzen zitzaigun gehienbat. Bigarren diskoak publiko zabalago batengana iristen lagundu zigun, eta Tximeletak diskoarekin ere halaxe izan da. Beharbada, jaso

dugun erantzuna ez da espero genuena izan, baina jaso ditugun mezuek esaten digute jendearen gustuko izan dela. Garbi utzi dugu Lainek baduela zeresana eta indarra.

**Kontzerturik ba al duzue gogoan iltzatuta?**

**Joseba de Amigo:** Londreskoa. Hango kamerinotan usaintzen zen musika usaina..., niretzat ikaragarria izan zen.

**Jon Altuna:** Lehendabizikoa aipatuko nuke nik, Aretxabaletakoa. Urduritasunak jota, afaltzeko gogoa ere galduta iritsi zen taldekideren bat. Nik neronek ere ez nituen guztiz menperatzen pare bat abesti. Dena ondo atera zen, ikaragarria izan zen.

**Nola definituko zenukete Lain hitz bakaerrea?**

**K.A.:** Guretzat familia da. Hemen ateratzen ditugu gure alderdi onak eta txarrak.

**Hori horrela izanda, pena emango dizue amaierak...**

**K.A.:** Bai, handia. Gauza asko egin ditugu elkarrekin, onak eta ez hain onak.

Hain onak izan ez direnei buelta ematen jakin dugu eta asko ikasi dugu.

**Aurrera begira, musikarekin lotuta jarraitzeko asmoa al duzue?**

**Joseba de Amigo:** Bai, modu batera edo bestera, guztiok jarraituko dugu musika egiten. Gaztetan musikan ibili denarentzat, zaila da guztiz uztea.

## POLAROIDAREKIN

**Santioak iristear dira, gogotsu al zaudete?**

**Javi Rivero:** Beti hartzen dira gogoz herriko festak. **Kristina Aranzabe:** Dudarik gabe, nahiz eta gero luze samar ere egiten diren. **Mikel Benito:** Ni ere gogoz, noski.

**Jaietako zein egun gustatzen zaizu gehien?**

**J.R.:** Uztailaren 24a, festetako lehendabiziko eguna. **K.A.:** Nik hiru egun aukeratuko nituzke: Lehen eguna, gazte eguna eta koadrila eguna. **M.B.:** Horiez gain, rock kontzertua ere nabarmenduko nuke.

**Zein hitzordutara ez duzue hutsik egingo?**

**K.A.:** Koadrila egunera. **J.R.:** Gaztetxeko kontzertura joango naiz, ziur. **M.B.:** Etxeondoko bazkaria ez dut hutsik egingo.

**Zein musika talde entzutea gustatuko litzazuke festetan?**

**J.R.:** Belako. **M.B.:** Cohen. **K.A.:** Altxatu.

**Eguna edo gaua?**

**K.A.:** Egunez hasi, eta ahal den arte. **J.R.:** Niri ere biak aprobetxatzea gustatzen zait. **M.B.:** Garai batean gaua esango nuke. Orain, biak.

**Jateko?**

**K.A.:** Bokadilloa. **J.R.:** Plazan, kalean jatea gustatzen zait niri. **M.B.:** Niri ere asko gustatzen zait plazako giroa.

**Edateko?**

**J.R.:** Garagardoa. **M.B.:** Garagardoa. **K.A.:** Egurenaren eta momentuaren arabera. Otorduetan sagardoa, eta bestela garagardoa.

**Zer esango zeniekete herritarrei?**

**K.A.:** Antolatzen diren ekitaldietan parte hartzeko.

**BEARZUN DETALL S.L.**

Industriagu. Albiasu errep. 10 pabilioia  
31870 Lekunberri - 948 504 486 - 620 876 287  
www.zeraleku.com

**ORAIN, URKO ZERALEKU HOGAR ERE BAGARA.**

**Etxe guztiko dekoraziorako materialak: sukaldeak, logelak, egongelak...**

Zeramika, komunetako altzari eta manparen salmenta.

**Prezio bereziak urte guztian zehar!**  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe.

**URKO**  
ZERALEKU HOGAR

Aralar, 58 - behea  
31870 Lekunberri  
948 504 344

www.urkozaleku.com

**ZERALEKU**

*Ondo pasa festetan!*

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIEN EDIZIO BERRIA, UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ESKUTIK

# Elkarrizketen atala nagusi

Sustrai Colina, Amagoia Gurrutxaga eta Unai Oiartzun kazetariak merezi izan dituzte aurtengo Rikardo Arregi sariak, epaimahaiaren arabera. Elkarrizketaren generoan lan bikainak egiteagatik izan di-

ra goraipatuak hirurak ere. Euskal komunikabideek gizartean funtsezko zeregina betetzen dutela adierazi zen beste behin, Basteron egin zen ekitaldian.

**Sustrai Colina** bertsolariak jaso zuen 28. edizioko Sari Nagusia, *Argia* astekarian kalera-tzen dituen elkarrizketengatik. Hitza hartu zuenean, erdal inguruetan tokiko komunikabideek daukaten meritua gogoan eduki zuen Colinak, eta bere buruari elkarrizketa fiktizioa egin zion, lau bertsoren bidez.

**Amagoia Gurrutxagari** eman zitzaion epaimahaiaren Aipamen Berezia. *Jakin* aldizkarian (212. alea) Kristiane Etxaluz ekintzaileari egin zion elkarrizketa luzeagatik. Administrazio publikoek euskarazko komunikabideei ematen dieten tratua izan zuen kritikaren jomugan, laguntzaile izan dituenekin esker oneko azaldu eta gero.

Azkenik, *Irunero* aldizkariko **Unai Oiartzunentzat** izan zen Kazetari Berria saria.

**Ana Carrere** alkateak, euskaraz bizi nahiak berarekin dakartzan erronkak aipatu zituen, teknologia berriek gero eta garrantzi handiagoa dauka-



Baztarrika, Colina, Gurrutxaga, Oiartzun eta Carrere sari banaketa ekitaldian. Bideoak ikusgai aiurri.eus gunean.

ten gizartean. **Patxi Baztarrika** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak, berriz, Rikardo Arregik euskararen egoera buruz Usurbilen 1966an egin zuen hitzaldi sutua hartu zuen gogoan. "Martxa honetan, ez da izango he-

mendik urte batzuetara euskaraz hitz egingo duenik. Horixe esan zuen Arregik, baina nabarmendu nahi dut egin zuen iragarpen ezkor hura ezerezean geratu dela. Egoeraren behar hartzaila zorrotza zen Rikardo, baina ez zuen asmatu euskara-

ren egoera antzematen, zorionez... Baina honetan ere goratu behar dugu, bere iragarpena ez zelako bete berari eta bere belaunaldikoei esker, ekinaren ekinez euskarak gizartean behar zuen lekua eskuratzeko jarri zituzten oinarriek esker".

Aurkezle lanak egin zituen **Garazi Kamiok**, Andoainen euskarak daukan presentzia eskasa aipatuz eman zion akabera ekitaldiari. "Pasa den mendeko 60ko hamarkadan euskalgintzaren olatuak Andoain busti zuen, baina ubera galdu egin dugu, eta aspaldian giro erdalduna bizi dugu herrian. Euskaraz jakin bai, baina gutxi erabiltzen dugu, %18k baino ez. Euskara putzu sakon eta ilunean sartu zaigu. Poztuko zatekeen Rikardo Arregi egindako guztiaz, baina ez dakit kezkatu ere ez ote zen egongo, ikusita ze erabilera maila erakusten duen Andoainek. Esan ez dakit, baina egin, esan aurretik ziur egingo zuela. Gu ez gara Rikardo Arregiren oinordeko, baina guk ere itolarririk atera nahi dugu euskara Andoainen".

Putzu sakon horretatik atera gogoz, irailaren 24an Andoainen "Andoaindarra euskaraz" eguna ospatuko dela iragarri zuen Kamiok.



## Ana Gaspar, playbackeko performancea



Ana Gaspar ezinbesteko auzotar bilakatu da Karrikako festetan. Antzezpenetarako bere dohainek ez daukate parekorik; playbackeko ekitaldian kapaz da lau show ezberdinetan parte hartzeko, merituzko performancea eginez.

### Jakinaraziko al zeniguke ohol-tzan zer eskainiko duzun aurtengoan?

Et-et-et! Hori ezin da argitu. Ingurukoek ere ez dute jakiten zertaz mozorrotuko naizen, playbacka heldu ohi den arte. Ezustearen efektua aintzat hartu behar da. Gehiago jakin nahi duena, bertara dadila igande arratsaldean.

### Hiru edo lau ikuskizun prestatu ohi dituzu urtero. Lana eskatuko dizu horrek...

Ez pentsa! Youtuben sartzen naiz, eta ideiak berehala etortzen zaizkit. Koreografia prestatzeko ere ez dut burua gehiegi astindu beharrik. Abestien letrek diotenari egiten diot kasu, eta aipatzen diren elementuekin jotzen dut; pepino bat, telefono bat...

### Zerk mugitzen zaitu urterotero parte hartzera playbackeko ikuskizunean?

Nire auzoko jaiak dira Karrikako jaiak, eta nahikoa dut peluka bat janzteia; transformatu egiten naiz jendaurrean. Bizitza gogorra egiten zaigu maiz, eta poz txikiak eragingo dizkiguten pizgarriak behar izaten ditugu. Hemezortzi urterekin playbackean parte har-

tzen hasi nintzenetik, ohartuta nago ez dela askorik behar jendearen ezpainetan hiru-lau minutuko irribarrea eragiteko.

### Ez al zara animatzen antzerkiaren munduan murgiltzera?

Tentatu izan nau antzerki talde batek, eurekin ohol-tza gainera igo nadin. Baina ez daukat denborarik. Gainera, iruditzen zait ezingo nukeela antzezenik egin ikusle ezezagunen aurrean, ezta Karrika ez den beste lekuren batean ere. Karrikan eta Karrikako jendearen aurrean hazi egiten naiz, beste egoeratan ez bezala. Ohol-tza gainera ari naizela, auzotarrak eta batez ere umeak ikusten ditut niri begira kontzentratuta edo irribarrez, txaloka... eta horrekin, munduko pertsonarik zoriontsuena bihurtzen naiz. Ez dut gehiago behar.

### Bakarrik aritzen zara numero batzuetan, lagunekin bestetan.

Jendea anima dadin saiatzen naiz. Izan ere, ekitaldi herrikoia da playbacka, eta lotsak eta beldurak uxatu beharko genituzke. Auzoan saiatzen naiz mezu jakin bat zabaltzen: alegia, probatzeko behin behintzat, ikusle bezainbat goza litekeelako antzezle bezala.

### Alaba (Lorena) ere zure bide beretik dator...

Hala dator, bai. Bi urterekin igo zen lehenbiziko aldiz lehengusuekin-eta, eta urterotero eskaintzen du ikuskizunen bat. Nolanahi ere, gazteei ederki kostatzen zaie ohol-tza gainera igotzea!

## Udan albisteak aiurri.eus webgunean eskainiko dira

Irailaren hasiera bitarte, Aiurrik udako etenaldiari ekingo dio. Paperezko edizioari dagokionez izango da hori, webgunean eta sare sozialen bitartez udako gertakarien eta jaien berri emango baita. Ohi bezala, udako


argazkiak eta bideoak internet sarean ikusgai izango dira aiurri.eus webgunean.

Irailaren 2an banatuko da hurrengo Aiurri astekaria, besteak beste, Sorabillako jaien eta udako albisten informazioarekin.

## HITZ-GEZIDUNAK

	* IRUDIKO IBAIA	Pastoraletako aktore	Irekitzeak
	Aiarako	Ardi, hitz elkarteetan	Apaiz
	Nafarroako herria		
	Izkinak		
Ohitua	Nafarroako herria	Tona	Erne!
Zezenak dituztuz	Zutik jarri	Toka, nieke	Senideak
Zuri dagoen gune			50
Abadiñoako auzoa			Futbol tantoa
			Gadolinioa
			Du, hari
Tinko, finko		Lokatza	
Daukat		Jainko egiptoarra	
	Indarrez hila		
	Röntgen		
Aurkariak, arerioak			

## HIEROGLIFIKOA



Zein atalena da aipatu duzun luzera?

## ERANTZUNAK

Diametroarena

I	A	R	E	K	I	A	L	G	D	I	A	K
A	R	A	B	E	A	L	E	G	D	I	L	A
O	A	R	I	B	E	A	L	E	G	D	I	L
A	A	R	T	Z	A	L	E	A	L	E	L	A
A	E	R	T	Z	A	L	E	A	L	E	L	A
L	E	N	I	E	N	A	G	D	I	L	A	K
B	E	Z	U	R	I	E	N	A	G	D	I	L
Z	M	A	T	I	N	K	E	R	K	A	K	A

## 'Bizitzaren Herena' ekimenaren aurkezpena



Bizitzaren herena izeneko ekimena aurkeztu zuten Axier Oiartzabalen senitartekoei eta lagunak. Oiartzabalek hamabost urte darama preso Frantziako espetxeetan, bere bizitzaren herena hain zuten. Taldeak joan den ostiralean Sorabillan iragarri zenez, irailetik aurrera egingo diren makina bat ekitaldi ari dira antolatzen, Oiartzabalen askatasuna eskatzeko helburuz.

PEIO UGARTEMENDIA ANDOAINGO GARRAIOLARIAK BIDESARIEI BURUZ HITZ EGIN DU

# “Gipuzkoako garraiolariak izango gara kaltetuenak”

Gipuzkoako N1 errepidean bidesaria jarriko dela iragarri du Foru Aldundiak berriki. Garraiolarietako ezarriko zaie, eta oso kexu agertu dira horiek. Peio Ugartemendia Andoaingo garraiolari

autonomoak hala adierazi dio Aiurriri. “Etsita gaude garraiolariak; jarri nahi den peajearekin Gipuzkoakoak kaltetuko gaituzte batez ere”.

## Haserrea agertu duzue Gipuzkoako kamioilarietako...

**Peio Ugartemendia:** Geu izango gara gehien ordainduko dugunak, ez Gipuzkoa astean behin zeharkatzen dutenak. Garraiolariak gauza guztien errudunak garelako ematen du. Ondo dago errepideen mantenimendurako ordaindu behar izatea, baina dauzkaten zor guztiak garraiolarien bizkar kitatu nahi dituzte. Errepideak geuk bakarrik erabili eta hondatuko bagenu bezala.

Oso gutxi baloratzen da gure lana, gizarteari eskaintzen diogun zerbitzua. Adibidez, goizero esnea nahi dugu gosarirako, baina ez gara ohartzen ezinbestekoa dela garraiolarien zeregina esnea alde batetik bestera eramateko.

## Zer eskatzen diozue Foru Aldundiari?

**P.U.:** Har ditzala neurriak, gu zertxobait konpentsatzeko. Esaterako, fiskalitatearen arloan, edota bana dezatela ordainsariaren kostua ekonomia-aren katea kontuan hartuta, hau da, guk bitartekaritza zerbitzuak eskaintzen dizkiegun lantegiak.

## Jarri den sistemak Gipuzkoako garraiolariak ahalik eta gutxien kaltetzen duela dio Aldundiak. Zuri nola eragingo dizu, konparazio batera?

**P.U.:** Nik txatarra garraiatzen



Ugartemendiak etorkizun beltza iragartzen dio garraiolarien sektoreari.

dut, eta askotan hiru bat alditan joaten naiz Araba aldera; hortaz, sei aldiz pasa beharra daukat Etxegarartetik. Egunean 20 euro ordaindu beharko baditut, hilean 400 euro dira... Bestalde, Andoaingo peajetik igarotzen denak euro bakarra ordaindu beharko duela diote, baina hori oso garraio lokalerrako izango litzateke, eta ez da batera erreala.

## Zuen sektorea nahiko lur jota dagoela ulertzen da zure hitzetatik...

**P.U.:** Etsia da nagusi. Eta okerrera da indibidualismoa ari dela nagusitzen gurean. Ondo-koa kalean geratu bada, ematen du poztu eta guzti egin beharra daukagula hark beregain hartzen zuen lana etorriko zai- gulakoan.

Ni 2007an autonomo izateko animatu nintzen, eta irauten dut orain arte, baina ez dakit noiz arte. Inguruan jende ugari ikusi dut kalean geratu dena kamioia utzita edo soldatapeko langile bihurtu behar izan duena. Lantegiak ere ixten direnean, galtzen diren lanpostu ez zuzeneko horien artean garraiolariak dira asko. Arcelorrekin, kasurako, berrogei bat kamioi kale gorrian geratu direla kalkulatu da.

Zahartzen ari dira kamioiak, eta gero eta gutxiago inbertitzen da bere mantenimenduan. Gero eta zaharra-

*“Ondo dago errepideen mantenimendurako bideratzea bidesaria, baino ez dadila dena garraiolarien bizkar izan”*

goak gara geu garraiolariak ere, eta gazterik ez dator atzetik. Nola etorriko da, bada, legeen aldetik jartzen dituzten baldintzekin? Garraiolari izan nahi duen gazte horri, besteak beste exijitzen zaio CAP izeneko ziurtagiria ateratzea, hiru kamioi edukitzea garraio tituluz jabetzeko... Azkenenean, administrazioek da kanpoko enpresak sektorean nagusi izan daitezten nahi dute, gu kalean utzita.

## Kamioien flota zaharkituta dagoela diozue...

**P.U.:** Egoera ekonomikoa dela, eta, gero eta gutxiago inbertitzen da kamioien mantenimenduan. Lehen errazago aldatzen ziren gurpil gastatuak, esaterako.

## Zer esan nahi duzu horrekin?

**P.U.:** Enpresa multinazionalak gero eta gehiago ari dira sartzen Gipuzkoan, baina bertan zergarik ordaindu gabe. Dumping praktikak dute. Kanpoko garraiolariak ekartzen dituzte, gure soldataren erdiarekin lan egiteko prest daudenak. Autonomo faltsuak sortzen dituzte horiekin; ez dituzte guk bezala zergak ordaintzen hemen, eta ez dute guri eskatzen zaizkigun txartel eta garraio titulurik behar. Nahi dituzten prezioak jarrita, gu bazterrean geratzea nahi dute, ondoren sektoreaz jabetzeko eta nahi dutena egiteko.

## Etorkizunean, protestak iragarri dituzue...

**P.U.:** Bai, ni Hiru sindikatuko kidea naiz, eta pentsatzen dut protesta ekintzak antolatuko dituela sindikatuak; egin izan ditugu, eta jarraitu beharko

## BIDESARIAK

Gipuzkoako Aldundiak ezarriko duen bidesariaren egitasmoa, zerbait datu:

- 2018ko urtarrilean jarriko da abian.
- Egunero erabiltzen duten 12.000 kamioien izango du eragina. Horietatik %60 Gipuzkoaz kanpokoak dira.
- Bi arrazoi argudiatu ditu Aldundiak: N1aren azpiegituraren mantenimendua kosteatzen laguntzea, eta, N1eko egungo trafikokoaren zati bat AP-8 eta AP-1 autopistetara bideratzea.
- Irun-Gaintxurizketa ibilbidea hiru bide zatitan banatuko da (AT sistema). Irun, Andoaingo eta Etxegararten arku bana ipiniko da (ez da kabina fisikorik egongo); horiek bertatik igarotzen diren kamioiak identifikatu egingo dituzte. VIA-T dispositibo elektronikoa daukaten kamioiek automatikoki ordaindu ahal izateko.
- Bide osoa egiten duenak, 10 euro ordaindu beharko du. 3,5 euro Etxegarartetik igarotzen denak edota Andoaingo Irune- ra doanak; Andoaingo igarotzen denak, euro bat.
- Aldundiak adierazi du ez dituela Gipuzkoako garraiolariak kaltetu nahi izan, baina halabeharrez jardun duela. Txosten juridiko baten arabera, Europar Batasunaren direktibak ez du uzten bertako garraiolarietako murrizketarik egiterik.
- Aldundiaren kalkuluen arabera, urtean 7,5 milioi euro bildu ahal izango da sistemarekin; gastu operatiboak eta mantenimenduzkoak kenduta, irabaziak hiru milioikoak izango dira.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

dugu mugitzen, Gipuzkoako garraiolarien sektoreak bizirik iraun dezan. Instituzioek bada- krite krisi larrian dagoela gure sektorea, baina ez adituarena egin diete orain arte geure eskakizunei.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
REPERRI-RURINTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



**Aiurri eskuragarri:**

Etex etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro.  
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea.  
20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.eus  
**Webgunea:** www.aiurri.eus

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.eus  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.eus  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.eus

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.eus  
www.aiurri.eus  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.eus  
Tel.: 943 300 732

**Banatzaileak:**

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia.  
Huarte-Iruñea.

# Agenda

**UZTAILAREN 14TIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus)**

## Zinema

**Andoain**

- **"Los Minions".**  
22:00 Goikoplaza.  
Uztailak 15, ostirala.
- **"Mad Max".**  
22:00 Etxeberrieta.  
Uztailak 21, osteguna.

## Ordutegiak

**Andoain**

- **Ataria, udako ordutegia:**  
13:30ean itxiko ditu ateak.
- **Liburutegia** udan.  
Uztaila:  
Astelena:  
10:00-13:00 / 16:00-20:00.  
Asteartea-ostirala:  
10:00-14:00.  
Abuztua:  
10:00-14:00.
- **Fonoteka** udan.  
Uztaila:  
Astelena:  
10:00-13:00 / 16:00-20:00.  
Asteartea-ostirala:  
10:00-14:00.  
Abuztua:  
Fonoteka itxita. Zerbitzua liburutegitik eskainiko da.
- **Igerilekua** itxita errehabilitazio obrak direla eta, uztailaren 26tik irailaren 12ra.
- **Kirol instalakuntza guztiak** itxita egongo dira abuztuaren 1etik 15era.
- **Hiribus** zerbitzurik ez da abuztuan izango.
- **Leitzararen bisitarien etxea** udan egunero zabalik.  
10:30-18:30.  
Irailak 11 bitarte.

## Ikastaroa

**Andoain**

- Udako ikastaroa, Andoaingo AEKren eskutik. Ikastaroa 8 astekoa da, uztaila eta iraila artean. Matrikula prezioa 251 eurokoa da eta lanen %85a eginez gero, Udalak matrikularen %75a itzultzen du.  
Informazioa:  
943 591704.  
[andoain@ae.eus](mailto:andoain@ae.eus).

## Jaiak

**Andoain, Karrika**

- **Uztailak 15, ostirala**  
19:00 Txupinazoa.  
19:15 Buruhandiak.  
19:30 Haur txokolatada.  
20:00 Sardin jatea.  
22:30 DJ Tristan.
- **Uztailak 16, larunbata**  
11:30 Haur jolasak.  
16:00 Mus partidak.  
16:00 Puzgarriak.  
19:00 Jumping erakustaldia.  
20:30 Afaria.  
22:30 Danborrada.  
22:30 DJ Nemux. Ondoren, baratxuri zopa.
- **Uztailak 17, igandea**  
11:30 Meza.  
11:30 Apar festa.  
12:00 Toka.  
12:30 Patata tortila lehiaketak.  
12:45 Paella jatea, razioak euro batean.  
18:00 Play back saioa.  
Ondoren, sagardo dastaketa.  
20:00 DJ Tristan.  
23:00 Jaiei amaiera.

**Andoain, Etxeberrieta**

- **Uztailak 29, ostirala**  
17:00 Txupinazoa.  
17:30 Marrazki lehiaketa haurrentzat. Txokolate jatea.  
18:00 Apar-festa.  
19:30 Patata tortila lehiaketa.  
20:30 Afaria bezalean.  
23:00-04:00 DJ Txingudi.
- **Uztailak 30, larunbata**  
11:00-14:00 Haur parkea, apar festa.  
12:00 Patata zuritze lehiaketa.  
16:00 Mus txapelketa.  
17:00 Haur jolasak, txokolate jatea.  
18:00 Sagardo dastaketa.  
20:30 Danborrada.  
22:30 Danborradako afaria.  
23:00-04:00 DJ Nemux.
- **Uztailak 31, igandea**  
10:00 Kalejira.  
10:00 Roberto Cabrejas kros herrikoia.

- 11:30 Meza Santa Krutz elizan.
- 12:00 Artzain zakurren erakustaldia.
- 12:00 Kantujira.
- 14:00 Auzo bazkaria.
- 18:30 Herri kirolak.
- 20:00 Toka txapelketa.
- 20:30 Sardin jatea.
- 20:30 Son Candela taldea.

## Musika

**Andoain, Zumea plaza**

- 19:30 Mandragora taldea.  
Uztailak 14, osteguna.

## Aisialdia

**Urnietan**

- **Gaztelekuak** antolatuta, **Udabentura:**  
Uztailak 14, osteguna:  
10:00-14:00.  
Orientazio ikastaroa Buzuntza mendian.  
Uztailak 15, ostirala:  
10:00-18:00.  
Eskalada eta egun pasa.
- **Street Art tailerra**  
Uztailak 18, 20 eta 22:  
10:00-13:00.  
Street Art tailerra, 1.  
Uztailak 19, 21 eta 22:  
10:00-13:00.  
Street Art tailerra, 2.

## Igerilekua

**Urnietan**

- Ordutegia: 10:00-20:30.  
Irailaren 11 bitarte zabalik.

## Txapelketa

**Andoain, Gaztetxea**

- 3x3 basket txapelketa.  
Uztailaren 22ra arte.

## Farmaziak

**Eskualdea**

- Andoain: **Zatarain.**  
Elizondo, 6.  
Urnietan: **Aguado.**  
Nagusia, 21. Astigarraga.
- Gaez: **Urrutia, Hernani.**  
Etxeberri, 1. Florida.  
Uztailak 16-17.

## ZORION AGURRAK

**ZORIONAK**



**Denis** Torrecillak 21 urte bete zituen uztailaren 5ean. Zorionak! Gurasoak, Victoria eta Florenaiton-amonak, Natalia arreba eta Mikel iloba.

**URNIETA**

**ZORIONAK**



Zorionak **Markel.** Gure etxeko gizon txoak 11 urte beteiko ditu uztailaren 29an. Muxu potoloka denon partetik. Ondo pasa udan!

**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Eñaut** Garmendia Iturraldek 12 urte beteiko ditu abuztuaren 3an. Ondo pasa txapelak! Uda ona igaro. Muxuak, etxe-koak. **ANDOAIN/VILLABONA**

**ZORIONAK**



**Leire**, 10 urte! Muxu handi bat amonagandik. Maite zaitut, politta. Amona Rosarito.

**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Anek** 5 urte beteiko ditu uztailaren 20an. Zorionak eta jarraitu beti bezain bihurri.

**ANDOAIN**

**ONGI ETORRI**



Amak bultza, aitak tira ta Xune arreba adi. Zumea plazan jaio nintzen, Urnaizni. Paaa!

**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Eñaut** Berruetak 4 urte beteiko ditu hilaren 27an. Muxuak aiton-amonak eta osabaren partetik.

**ANDOAIN**

## LAN ESKAINTZA

Aiurri astekariak banatzailea behar du irailtik aurrera Urnietako banaketa egiteko. Interesatuak deitu 943 300 732 telefono zenbakira edota idazkaritza@aiurri.eus emailera idatzi.

**SAN ESTEBANGO**  
**IV. AZOKA BEREZIA**  
Andoain

**Jakiak eta artelanak**

**Abuztuak 6, larunbata goizean zehar**